

Etika Publikorako Batzordea

Gaia: 01/2025

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN ERABAKIA, (...) (...)KO BIZILAGUNAK AURKEZTUTAKO SALAKETARI BURUZKOA. GAIA: (...)KO UDALEAN MENDEKOTASUN HANDIA DUEN KOLEKTIBOARI ESKAINTZEN ZAION ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAREN KUDEAKETAREN ARDURA DUTEN KARGUDUNEK USTEZ ETIKAREN ETA JOKABIDEREN KODEA URRATU IZANA.

1.- 2024ko urriaren 18an, Zuzenean plataformaren bidez, eta geroago, 2024ko abenduaren 12an, Euskadiko Etikarako Batzordeari igorritako mezu elektroniko baten bidez, (...) jaunak idazki bat aurkeztu zion Euskadiko Etikarako Batzorde honi aztertu eta ebaluatu ditzagun. Idazki horretan, (...)ko Udalak kudeatzen duen Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin lotutako gertaera batzuen berri ematen du, salatzailearen ustez, (...)ko Udalean ez baitute kargudun publikoen etika-kodea betetzen.

2.- Salatzailearen amaren zainketan jazotako gertaera batzuetan oinarritu du idazkia salatzaileak. Haren amak mendekotasun handia du eta salatzailea du tutore judizial.

3.- Idazkian salatzaileak “oso astuntzat” jotzen dituen gertaera batzuen berri ematen du, guztiak ere mendekotasun handia duen kolektiboaren zaintzarekin lotuak.

4.- Funtsean, salaketan esaten du Etxeko Laguntza Zerbitzuak ez zituela gutxieneko zerbitzuak eskaini greba-prozesu batean, eta horri eranstean dio (...)ko Udalean ez dela Etikaren eta gobernu Onaren Kodea bete, beren esku baitzegoen gutxieneko zerbitzu horiek behar bezala ematea bermatzea.

5.- Esan beharra dago, 2019 urtean ere, salatzaile berberak antzeko egoera salatzeko beste idazki bat igorri ziola Etika Publikorako Batzorde honi (ikusi 5/2019 Erabakia). Orduan telefonoz jarri ginen harremanetan salatzailearekin, ikusarazteko ezen salaketan jasotako gertaerak (...)ko Udaleko arduradunen jarrera eta jokamolde zehatz batzuei buruzkoa zela soil-soilik, eta hori Etika Publikorako Batzorde honen jarduketa-eremutik kanpo geratzen dela.

6.- Horiek horrela, hauxe da EPBak, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.4. apartatuaren bigarren tartekiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, aho batez hartu duen

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago egun. Bi helburu hauek lortzeko sortu zen kodea: politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan zuten konfiantza leheneratzeko.

Horretarako, aipatu Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; zintzotasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du Etika Publikorako Batzordeak, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez-betetzeei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA

1.- 4/2015 , 1/2017 eta 1/2019 erabakietan adierazi genuenaren arabera, Etika eta Jokabide Kodeak, zeina Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu baitzen, EHAA-n argitaratzen denetik aurrera sortzen ditu ondorioak —urte horretako ekainaren 3an argitaratu zen, hain zuzen—, eta kodearen 2. apartatuan zehaztutako kargu publikodunentzat soilik du indar loteslea, kargu publikodun horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta Kodearekiko banakako atxikipena formalizatu ondoren. Kodearen 18.3 apartatuak hala ezartzen du: "Kodea banaka atxikitzearen ondorioz, kargu publikodunek eta parekatuek beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa".

2.- 1/2014 Legeak ez du aldatu Etika eta Jokabide Kodeak, onartua izan zen unetik, ezarritako aplikagarritasun-eredu subjektibo eta denborazko hori. Lege horren 5, 6, 7 eta 8. artikuluetan, "kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak" jasotzen dira, eta printzipio horiek legea indarrean sartu ondoren dira soilik lotesleak —legea 2014ko azaroaren 1ean sartu zen indarrean—, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikodunak soilik lotzen dituzte, kargu publikodun horiek ofizialki izendatu eta legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitze sistemaren bidez legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartu ondoren.

3.- Ondorioz, 1/2014 Legeak 4. artikuluan aurreikusten duen katalogoan sartuta dauden kargu publikoak soilik behartzen ditu Etika eta Jokabide Kodeak —horrenbestez, baztertu egiten dira katalogo horretan ez datozenak—, eta bakarrik izendapena formalizatzen denetik kargu-uzteak ondorioak dituen egunera arte.

4.- Arestian esan bezala, azpimarratu beharra dago 5/2019 Erabakiak ere salatzaile berberak aurkeztutako idazki bat duela abiapuntu eta oinarrian antzeko kasu bat duela, eta orduan ere salaketa ez zela aztertzeke onartu.

5.- Azkenik erantsi behar da (...)ko Udalak bere Etika eta Gobernu Onaren Kodea duela.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez.

ERABAKIA:

Ez onartzea (...) jaunak aurkeztutako salaketa, arrazoi honengatik: salaketa udaletxe bateko arduradun publiko batzuen kontra jarri da, baina pertsona horiek ez dira EJKren hartzaileen kolektiboan sartzen –kolektibo horretara mugatzen da EPB honen jarduketa-eremu subjektiboa–, eta ez daude kargu publikodunen katalogo eguneratuan, zeina martxoaren 26ko 51/2019 Dekretuz onartu baitzen.

María Ubarretxena Cid
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 21a.